



AUKERA DEZAGUN TITULAR BAT

Osagaiak:

- *Eguneroko eskandalua posterra.*

Prestaera:

- Jarri neska-mutilak taldeka. Posterra erakutsi eta artikulua irakurri.
- Azken esaldia errepikatu: «Gure planeta gauza al da halako presioa jasateko?». Eta gogoeta egin:
 - Zer presiori buruz ari da galdera hori? Zer-nolako presioak jasaten ari da gure planeta?
 - Zaborretara botatzen ditugun elikagai tona horiek kalte egiten diote ingurumenari. Zergatik?
- Gero, pentsa dezatela artikulurako beste titular bat, «Janaria botatzearen katea» jardueratik ateratako ideia nagusia islatuz.
- Adierazi ikasleei ondokoa: «Titular bat idazteko, hainbat alderdi izan behar dituzue kontuan:
 - Oso garbi izan behar duzue zer adierazi nahi duzuen. Idatzi titularrean jaso nahi dituzuen giltza-hitzak.
 - Titularrean, oso mezu garbia jaso behar da, eta oso hitz gutxitan.
 - Titularrak irakurlearen arreta erakarri behar du, artikulua irakurtzen jarraitzera bultzatuz».

Bazkalondoan:

- Talde guztiek beren titularra prest daukatenean, idatzi titular guztiak arbelean. Talde bakoitzeko kide batek titularraren inguruko azalpenak emango ditu, eta titular hori zergatik hautatu duten esango du.
- Titular horiek klipmetrajeak egiteko irizpide gisa erabil ditzakete (izenbururako, gidoia idazteko, eta abar).